

195. araua

Artelanen izenak. Musika

(Euskaltzaindiak 2023ko irailaren 29an onartua, Iruñean)

Musikako artelanak izendatzeko irizpideak

1 Letra larria lehen hitzeko lehen letran bakarrik

Musikako era guztietako konposizioen izenburuen lehen hitza letra larriz hasita idazten da, baita izenburuaren parte diren izen berezien lehen letra ere, halakorik badago, baina izenburuaren gainerako hitzak letra xehez idazten dira.

Dena dela, konposizioen jatorrizko izenak jatorrizko hizkuntzan idazten direnean, hala nola kantarien eta musika-taldeen kantak aipatzean, ohikoa da jatorrizko idazkeraren arabera idaztea. Adibidez, ingelesezko kanten izenetan hitz guztiak letra larriz hasten dira:

Xabier Leteren *Izarren hautsa* kanta ezin ospetsuagoa.

Édith Piafen *Non, je ne regrette rien* kanta 1960koa da.

Espainiako Gerra Zibilaren garaikoa da *Si me quieres escribir* kanta.

1956an, *Don't Be Cruel* grabatu zuen Elvis Presleyk.

2 Letra etzana

Konposizioaren izenburu osoa letra etzanez idazten da. Hala, argi zedarrituta gelditzen da haren hedadura. Kanten izenburuak ere letra etzanez idazten dira bakarrik aipatzen direnean, baina lan handiago baten parte gisa aipatzen direnean (adibidez, album baten, kantutegi baten, opera baten eta abarren parte gisa), letra zuzenez eta komatxo artean idazten dira. Adibideak:

Antonio Vivaldiren lanik ezagunena *Lau urtaroak* da.

1846an, Frédéric Chopinek *Polonesa-Fantasia* idatzi zuen.

The Beatles taldeak 1966an grabatu zuen *Yellow Submarine* kanta.

Itoiz taldearen kantarik ezagunena *Lau teilatu* da.

Itoiz taldearen *Itoiz* diskoko laugarren kanta da "Lau teilatu" ospetsua.

Lady Gagaren *The Fame* albumeko kantarik ezagunenak "Just Dance" eta "Poker Face" dira.

Beethovenen 9. sinfoniako laugarren mugimenduan abesten da "Alaitasunaren oda" ezaguna, Europar Batasunaren himno ofiziala.

Beste hainbeste ariei dagokienez. Adibidez:

Belliniren *Norma* operaren ariarik ezagunena "Casta Diva" da.

Tristan eta Isolda operaren amaieran kantatzen du Isoldak "Liebestod" aria ospetsua.

3 Musika-lan klasikoen izenburuak: itzuli ala jatorrizko izena erabili?

Musika-lan klasikoen izenak, gainerako artelanen izenak bezala, itzuli egiten dira, oro har, salbuespenak badiren arren. Jatorrizko izena hizkuntza bakoitzera ekartzea da ohiko jokamoldea (lan espezializatuetan, hala nola entziklopedietan, komenigarria izaten da jatorrizko izenburua ere ematea, informazio osagarri gisa). Adibidez, Antonio Vivaldi italiar konpositorearen *Le quattro stagioni* obra *Las cuatro estaciones* izendatzen da gaztelaniaz, *Les Quatre Saisons* frantsesez, *The Four Seasons* ingelesez, *De vier jaargetijden* nederlanderaz, *Les quatre estacions* katalanez, etab. Hala jokutzen da euskaraz ere: *Lau urtaroak*.

4 Musika-lan klasikoen konposizioen izendapena

Konposizioak identifikatzeko, izendapenak zenbait osagai ditu, beti guztiak aipatzen ez badira ere. Bestalde, musika-lan askok ez dute berariazko izenbururik; horregatik, identifikatzeko, musika-forma, tonalitatea eta katalogo-zenbakia baliatzen dira zer obra den zehatz-mehatz adierazteko (izenburu generikoak). Beste musika-lan batzuek badute benetako izena, eta letra etzanez eta letra larriz hasita idazten da izen hori. Hauek dira izenburu generikoen osagaiak:

- Musika-forma edo generoa: fuga, suitea, kontzertua, sonata, sinfonia, fantasia...

Musika-formak izen arruntak dira, eta letra xehez idazten dira. Hala ere, musika-lana formaren bidez bakarrik izendatzen denean, izenburu bihurtzen da, eta, horrenbestez, letra larriz hasita idatz liteke (adibidez, Beethovenen 5. Sinfonia), eta, izenburua den aldetik, letra etzanez ere idatz liteke, baina, izenburu deskribatzaile hutsa denez, letra

zuzenez eta xehez idatzi ohi da (adibidez, Beethovenen 5. sinfonia). Dena dela, baldin eta, musika-lana izendatzeko, musika-formaz gainera beste osagaien bat erabiltzen bada, letra etzanez idazten da; orduan, lehen hitza bakarrik idazten da letra larriz hasita (adibidez, Beethovenen *Patuaren sinfonia*). Konposizioa musika-formaren bidez izendatzen denean, zenbakia aipatu ohi da, autoreak musika-forma hori erabiliz egindako konposizioa zenbagarrena den adierazteko eta gainerakoetatik bereizteko; letraz adieraz daiteke (laugarren sinfonia, hirugarren sonata...), baina ohikoa da digituz adieraztea (4. sinfonia, 3. sonata...).

Adibidez:

Ludwig van Beethovenek 1804 eta 1808 bitartean konposatu zuen 5. sinfonia, *Patuaren sinfonia* deitua.

Dvořáken 9. sinfonia, *Mundu Berriko sinfonia*.

Zenbaitetan, adjektibo bat erabiltzen da sinfonia kalifikatzeko. Adjektibo hori itzuli egin daiteke, edo jatorrizko forman utzi, eta letra etzanez idazten da:

Beethovenen 3. sinfonia, *Eroica* ere deitua; hau da, *Sinfonia heroikoa*.

Beethovenen 9. sinfonia edo *Sinfonia korala*.

Txaikovskiren 3. sinfonia, *Polonesa*.

- Tonalitatea: mi minor, re maior...

Tonalitateak izen arruntak dira, eta letra xehez idazten dira. Adibidez:

Pietro Mascagniren sinfonia fa maiorrean.

Frantz Schuberten sonata do minorrean.

- Katalogo-zenbakia edo *opus*-zenbakia

Konpositore baten obra batek konpositore horren obren artean duen ordena-zenbakia adierazteko erabiltzen da¹. Askotan, *opus* hitzaren laburdura erabiltzen da: *op*. Katalogo batzuetan ez da erabiltzen *opus* hitza, beste batzuk baizik. Adibidez, Johann Sebastian Bach musikariaren obretan BWV alemanezko sigla erabiltzen da (*Bach Werke Verzeichnis*, "Bachen obren katalogoa"), eta Wolfgang Amadeus Mozart musikariaren obretan KV sigla baliatzen da (*Köchelverzeichnis*, "Köchel katalogoa").

Beethovenen 5. sinfonia, *Patuaren sinfonia*, do minorrean, *op. 67*.

¹ *opus*: musika-obrak izendatzean, obra-izenaren ondoren erabili ohi den hitza (latinez "obra" esan nahi du *opus* hitzak), delako obra konpositorearen produkzioan kokatzen duen zenbakia duena. Zenbaki horrek ez du beti balio kronologiko fidagarriarik, maiz argitaratzaileek jarria izaten baita.

Musika-konposizioaren izenburuan, batzuetan, musika-forma aposizioan erabiltzen da; kasu horietan, musika-forma ez da izenburuaren parte; horregatik, ez da beharrezkoa letra etzanez idaztea. Adibidez:

Mendelssohnen *Lobgesang* sinfonia

Straussen *Burleske* pieza kontzertantea

Izenburuaren parte denean, berriz, letra etzanez idazten da. Adibidez:

Patuaren sinfonia, Mundu Berriko sinfonia, Sinfonia fantastikoa, Sinfonia kontzertantea, Suite espainola, Enperadorearen kontzertua, Brandenburgoko kontzertuak, Linzeko sinfonia.

5 Operen, balleten eta zarzuelen izenak

Bada joera nagusi bat: operen izenak ez itzultzea eta jatorrizko izenburua erabiltzea. Dena dela, salbuespen eta kasu partikular ugari daude. Kasuistika oso zabala da. Adibidez, Mozarten *Così fan tutte* edo *Don Giovanni* ez dira itzuli ohi (Mozart ez zen italiarra, baina bi opera horien libretoak Lorenzo Da Ponte italiar poetak idatzi zituen), baina *Le nozze di Figaro* (Lorenzo Da Pontek idatzia Pierre Beaumarchais frantses idazlearen *le Mariage de Figaro* komedian oinarritua) edo *Die Zauberflöte* bai: *The Marriage of Figaro* eta *The Magic Flute* dira ingelesez, *Les Noces de Figaro* eta *la Flûte enchantée* frantsesez, *Las bodas de Figaro* eta *La flauta mágica* gaztelaniaz.... Edo Béla Bartók hungariar konpositorearen *A kékszakállú herceg vára* izeneko opera *El castillo de Barbazul* izendatzen da gaztelaniaz, *Le Château de Barbe-Bleue* frantsesez eta *Duke Bluebeard's Castle* ingelesez.

Beste batzuetan, operaren jatorrizko izenburuaren hizkuntza beste hizkuntza batean idatzitako libretoaren jatorrizko izenburuaren itzulpena da. Halakoetan, normala da operaren izena itzultzea. Adibidez, Bedřich Smetana txekiar konpositorearen *Dvě vdovy* opera Jean-Pierre Felicien Mallefille frantses idazlearen *Les deux veuves* obran oinarrituta dago. Eta opera hori *Dvě vdovy* izendatzen da txekieraz, *The Two Widows* ingelesez, *Les deux veuves* frantsesez, *Las dos viudas* gaztelaniaz, *Le due vedove* italieraz...

Beste kasu batzuetan, operagileak berea ez den hizkuntza bateko izenen batez bataiatu du opera. Halakoetan, ohikoa da izen hori ez itzultzea. Adibidez, Franz Berwald suediar konpositorearen opera baten izena *Estrella de Soria* da, Gaztelako Erresuman girotuta baitago, eta izen hori erabiltzen da hala suedieraz nola gainerako hizkuntzetan.

Beste batzuetan, izen bibliko, historiko edo mitologikoek osatzen dute operaren izena, eta ohikoa da izen horien grafia hizkuntza bakoitzean moldatzea. Adibidez, Carl Nielsen daniar konpositorearen *Saul og David* opera *Saül et David* da frantsesez, eta *Saúl y David*

gaztelaniaz. Edo Camille Saint-Saëns frantses konpositorearen *Samson et Dalila* opera *Sansón y Dalila* da gaztelaniaz eta *Samson and Delilah* ingelesez.

Euskaraz ere nazioarteko joerei jarraituko zaie, baina beti da zilegi jatorrizkoa erabiltzea.

Bestalde, operaren jatorrizko izenburua beste alfabeto batean dagoenean —hala gertatzen da, adibidez, konpositoreak errusiarrak direnean (Txaikovski, Rakhmaninov, Rimski-Korsakov, Stravinski, Prokofiev, Mussorgski...), haien operen jatorrizko izenak alfabeto zirilikoan baitaude—, izenburua —izen arruntak baditu— itzuli egin ohi da eta ez da transkribatzen (entziklopedietan informazio osagarri moduan transkripzioa ere ematen bada ere). Adibidez, Rimski-Korsakoven *Майская ночь* opera (transkribatuta, *Mainskaia notx*), *May Night* da ingelesez, *Die Mainacht* alemanez, *La noche de mayo* gaztelaniaz, *la Nuit de mai* frantsesez... Edo Prokofieven *Война и мир* opera (transkribatuta, *Voina i mir*), Tolstoi idazlearen izen bereko eleberrian oinarritua, *War and Peace* da ingelesez, *Krieg und Frieden* alemanez, *Guerra y paz* gaztelaniaz, *Guerre et paix* frantsesez... Euskaraz ere berdin jokatu da: *Maiatzeko gaua* eta *Gerra eta bakea*.

Balleten izenetan ere, jatorrizko izenak erabiltzea da joera nagusia, baina, operetan bezala, badira salbuespenak. Errusiar konpositoreen balleten izenak itzuli egiten dira. Adibidez, *Лебединое Озеро* izeneko balleta (transkribatuta, *Lebedinoie ozero*) *Swan Lake* da ingelesez, *Schwanensee* alemanez, *le Lac des cygnes* frantsesez, *El lago de los cisnes* gaztelaniaz.... Eta *Щелкунчик* izeneko (transkribatuta, *Stxelkuntxik*) *The Nutcracker* da ingelesez, *Der Nussknacker* alemanez, *Casse-Noisette* frantsesez, *El cascanueces* gaztelaniaz... Euskaraz ere, beste hainbeste: *Beltxargen aintzira*, *Intxaur-hauskailua*.

Zarzuela Espainiako opereta-mota bat da, Hispanoamerikara ere hedatua. Zarzuela gehienak gaztelaniaz idatzita daude, baina badira katalanez idatzitako zarzuelak ere, eta haien izenak ez dira itzuli ohi:

El puñao de rosas; El barberillo de Lavapiés; Doña Francisquita; La revoltosa; El caserío; Gigantes y cabezudos; La verbena de la Paloma; Agua, azucarillos y aguardiente; L'aplec del remei, Lo somni de la Ignocència.

Badira euskarazko zarzuela batzuk ere, XIX. mendearen eta XX. mendearen hasierakoak, hala nola *Lehenago hil* (jatorrizko grafia: *Lenago il*), Alfredo Etxaberen libretoarekin eta Aureliano Valleren musikarekin, eta *Bide onera*, edo *Lide eta Ixidor* (jatorrizko grafia: *Lide ta Ixidor*) haur-opera, edo R.M. Azkueren *Vizcaytik Bizkaira*.

Musikako zenbait artelan ezagun

1 Zenbait ballet ezagun

EUSKARA	JATORRIZKO IZENA	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA
Beltxargen aintzira	<i>Лебединое Озеро</i> (Lebedinoie ozero)	<i>El lago de los cisnes</i>	<i>le Lac des cygnes</i>	<i>Swan Lake</i>
Giselle	<i>Giselle</i>	<i>Giselle</i>	<i>Giselle</i>	<i>Giselle</i>
Intxaur-hauskailua	<i>Щелкунчик</i> (Stxelkuntxik)	<i>El cascanueces</i>	<i>Casse-Noisette</i>	<i>Nutcracker</i>
La Bayadère	<i>La Bayadère</i>	<i>La bayadera</i>	<i>La Bayadère</i>	<i>La Bayadère</i>
Le Corsaire	<i>Le Corsaire</i>	<i>Le Corsaire</i>	<i>Le Corsaire</i>	<i>Le Corsaire</i>
Loti ederra	<i>Спящая красавица</i> (Spiatxaia Krasavitsa)	<i>La bella durmiente</i>	<i>La Belle au bois dormant</i>	<i>The Sleeping Beauty</i>
On Kixote	<i>Дон Кихот</i> (Don Kikhot)	<i>Don Quijote</i>	<i>Don Quichotte</i>	<i>Don Quixote</i>
Romeo eta Julieta	<i>Ромео и Джульетта</i> (Romeo i Dzhulietta)	<i>Romeo y Julieta</i>	<i>Roméo et Juliette</i>	<i>Romeo and Juliet</i>

2 Zenbait opera ezagun

OHARRA: parentesi artekoa esanahia da

OPERAREN IZENA	JATORRIZKO IZENA	EGILEA
Aida	<i>Aida</i>	Verdi
Bi alarguntsak	<i>Dvě vdovy</i>	Smetana
Bizarrurdinen gaztelua²	<i>A kékszakállú herceg vára³</i>	Bartók
Carmen	<i>Carmen</i>	Bizet
Cavalleria rusticana	<i>Cavalleria rusticana</i>	Mascagni
Così fan tutte	<i>Così fan tutte</i>	Mozart
Das Rheingold⁴ / Rhineko urrea	<i>Das Rheingold</i>	Wagner

² Jatorrizkoa moldatuta itzuli ohi da. Gaztelania: *El castillo de Barbazul*; frantsesa: *Le Château de Barbe-Bleue*; ingelesa: *Duke Bluebeard's Castle*.

³ Literalki itzulia: *Bizarrurdin dukearen gaztelua*.

⁴ Jatorrizkoa itzuli ohi da. Gaztelania: *El oro del Rin*; frantsesa: *L'Or du Rhin*.

OPERAREN IZENA	JATORRIZKO IZENA	EGILEA
Die Entführung aus dem Serail (Bahiketa serrailoan)	<i>Die Entführung aus dem Serail</i>	Mozart
Die Fledermaus (Saguzarra)	<i>Die Fledermaus</i>	Strauss
Die Walküre⁵ / Walkiria	<i>Die Walküre</i>	Wagner
Don Carlos⁶	<i>Don Carlos</i>	Verdi
Don Giovanni	<i>Don Giovanni</i>	Mozart
Don Pasquale	<i>Don Pasquale</i>	Donizetti
Estrella de Soria	<i>Estrella de Soria</i>	Berwald
Eugeni Onegin	<i>Евгений Онегин</i> (Jevgeni Onegin)	Txaikovski
Fausto	<i>Faust</i>	Gounod
Figaroren ezteiak⁷	<i>Le nozze di Figaro</i>	Mozart
Gerra eta bakea	<i>Война и мир</i> (Voina i mir)	Prokofiev
Götterdämmerung⁸ / Jainkoen gainbehera	<i>Götterdämmerung</i>	Wagner
Hänsel und Gretel⁹ / Hansel eta Gretel	<i>Hänsel und Gretel</i>	Humperdinck
Il trovatore	<i>Il trovatore</i>	Verdi
La bohème	<i>La bohème</i>	Puccini
La Cenerentola (Errauskine)	<i>La Cenerentola</i>	Rossini
La traviata	<i>La traviata</i>	Verdi
L'elisir d'amore (Maitasun-elixirra)	<i>L'elisir d'amore</i>	Donizetti
Lohengrin	<i>Lohengrin</i>	Wagner
Lucia di Lammermoor	<i>Lucia di Lammermoor</i>	Donizetti
Madama Butterfly	<i>Madama Butterfly</i>	Puccini
Maiatzeko gaua	<i>Майская ночь</i> (Mainskaia notx)	Rimski-Korsakov
Nabucco	<i>Nabucco</i>	Verdi

⁵ Jatorrizkoa itzuli ohi da. Gaztelania: *La valquiria*; frantsesa: *La Walkyrie*.

⁶ Jatorrizko izena *Don Carlos* bada ere, *Don Carlo* izena erabili ohi da opera italieraz ematen denean.

⁷ Jatorrizkoa itzuli ohi da. Gaztelania: *Las bodas de Figaro*; frantsesa *la Flûte enchantée*; ingelesa: *The Marriage of Figaro*.

⁸ Jatorrizkoa itzuli ohi da. Gaztelania: *El ocaso de los dioses*; frantsesa: *Le Crépuscule des dieux*.

⁹ Jatorrizkoa egokitu ohi da. Gaztelania: *Hansel y Gretel*; frantsesa: *Hansel et Gretel*; ingelesa: *Hansel and Gretel*.

OPERAREN IZENA	JATORRIZKO IZENA	EGILEA
Nibelungoaren eraztuna ¹⁰	<i>Der Ring des Nibelungen</i>	Wagner
Norma	<i>Norma</i>	Bellini
Otelo	<i>Otello</i>	Verdi
Pagliacci (Pailazoak)	<i>Pagliacci</i>	Leoncavallo
Parsifal	<i>Parsifal</i>	Wagner
Rigoletto	<i>Rigoletto</i>	Verdi
Samson eta Dalila ¹¹	<i>Samson et Dalila</i>	Saint-Saëns
Saul eta David ¹²	<i>Saul og David</i>	Nielsen
Sevillako bizargina ¹³	<i>Il barbiere di Siviglia</i>	Rossini
Siegfried / Sigfrido	<i>Siegfried</i>	Wagner
Tannhäuser	<i>Tannhäuser</i>	Wagner
Tosca	<i>Tosca</i>	Puccini
Tristan und Isolde / Tristan eta Isolda	<i>Tristan und Isolde</i>	Wagner
Turandot	<i>Turandot</i>	Puccini
Txirula magikoa ¹⁴	<i>Die Zauberflöte</i>	Mozart
Un ballo in maschera (Maskara-dantzaldia)	<i>Un ballo in maschera</i>	Verdi

3 Musika klasikoaren zenbait obra ezagun

IZENA	JATORRIZKO IZENA	EGILEA
36. sinfonia do maiorrean, KV 425, <i>Linzeko sinfonia</i>	<i>Linz</i>	Mozart
9. sinfonia mi minorrean, op. 95, <i>Mundu Berriko sinfonia</i>	<i>Z nového světa</i>	Dvořák
Bigarren sinfonia do minorrean, <i>Pizkundearen sinfonia</i>	<i>Auferstehung</i>	Mahler
Bigarren sinfonia si bemol maiorrean, <i>op. 52, Lobgesang</i>	<i>Lobgesang</i>	Mendelssohn
Bigarren sinfonia, op. 31, <i>Sinfonia kopernikarra</i>	<i>Symfonia Kopernikowska</i>	Górecki

¹⁰ Lau operaz osatutako tetralogia. Jatorrizko izena itzuli ohi da. Gaztelania: *El anillo del nibelungo*; frantsesa: *L'Anneau du Nibelung*; ingelesa: *The Ring of the Nibelung*.

¹¹ Jatorrizkoa egokitu ohi da. Gaztelania: *Sansón y Dalila*; ingelesa: *Samson and Delilah*.

¹² Jatorrizkoa egokitu ohi da. Gaztelania: *Saúl y David*; frantsesa: *Saül et David*; ingelesa: *Saul and David*.

¹³ Jatorrizkoa itzuli ohi da. Gaztelania: *El barbero de Sevilla*; frantsesa: *le Barbier de Séville*; ingelesa: *The Barber of Seville*.

¹⁴ Jatorrizkoa itzuli ohi da. Gaztelania: *La flauta mágica*; frantsesa: *la Flûte enchantée*; ingelesa: *The Magic Flute*.

IZENA	JATORRIZKO IZENA	EGILEA
Biolin, biola eta orkestrarako <i>Sinfonia kontzertantea</i> mi bemol maiorrean		Mozart
<i>Brandenburgoko kontzertuak</i> , BWV 1046-1051	<i>ix Concerts à plusieurs instruments</i>	Mozart
<i>Burleske</i> , re minorrean	<i>Burleske</i>	Strauss
<i>Danteren sinfonia</i>	<i>Eine Symphonie zu Dantes Divina Commedia</i>	Liszt
<i>Faustoren sinfonia</i>	<i>Eine Faust-Symphonie</i>	Liszt
Fuga sol minorrean, K. 30, <i>Katuaren fuga</i>	<i>Fuga del gatto</i>	Scarlatti
<i>Kanpaiak</i> , op. 35	<i>Колокола</i> (Kolokola)	Rakhmaninov
<i>Kontzertu italiarra</i> , BWV 971	<i>Concerto nach Italiænischen Gusto</i>	Bach
<i>Lau urtaroak</i>	<i>Le quattro stagioni</i>	Vivaldi
Lehen sinfonia do minorrean, op. 68		Brahms
Pianorako 5. kontzertua mi bemol maiorrean, op. 73, <i>Enperadorearen kontzertua</i>		Beethoven
Pianorako 3. kontzertua mi maiorrean		Béla Bartók
<i>Salmoen sinfonia</i>	<i>Symphony of Psalms</i>	Stravinski
<i>Sinfonia fantastikoa</i> , op. 14	<i>Symphonie fantastique</i>	Berlioz
<i>Sinfonia kontzertantea</i> si bemol maiorrean		Haydn
<i>Suite espainola</i> , op. 47	<i>Suite espainola</i>	Albéniz